

Mandiola baillaria



Santa Kurutz

Baserrien planuak

Mandiola baillaria

Baillara zabala dogu Mandiola, Elorreta aldetik hasi eta Azpiri basarrira arte zabaltzen dana. Gorosta baillariakin topo egitten dau sartaldian, baiña ez dau ordia bat egitten; ondo bereiztuta dare auzo bixak. Santa Kurutz ermittatik Matsarira jaisten dan bide zaharra da mugia. Akondiatik behera, Naiorbe basarri bixen artetik eta Urkuzei basarrixan ondolik pasatzen dan bide zaharra edo andabidia da bi ballaren mugen testigu. Bestekaldetik barriz, Bizkaia eta Gipuzkoako mugak bereizten dau Mandiola Ermutik. Mandiola zabala dala aittatu dogu, eta izan bihar, bertan daren 29 basarrixak bere barnian jasotzeko. Hogetabederatzi gaur egun darenak, bere sasoiaren beste 16 be tente egon ziralako auzuan. Eskolak, oiñ dala gitxi egindako etxe barrixak eta ermittak be badake beran lekutzua Mandiola Ballian.

Basarri eta pertsona ezagunak emon izan dittu baillara honek. Eibarren eta Eibartik kanpo izen haundikua izan zan Bittor Sarasketa Mandiolako Azpiri basarrixan bizi izan zan eta Gisasola, Iturrao edo Pagei basarrixetako dozenaka seme Eibarko alkate, abade, izkribau eta errejidore izan da. Baiña auzo honetan jaixo edo bizi izandako

izen bi aittatzekotan, Indalezio Sarasketa “Eibarko Txikito” eta Migel Gallastegi dira danori gogora etortzen jakuzenak. Azpirikua lehelena eta Asoliartzakua bigarrena, pelota munduak euki dittuan izenik haundixenetakuak izan dira. Euskal Herriko beste zer txokok esan leike bardiña?

Santa Kurutz eskoliak be badaka beran garrantzixa Mandiolan eta inguruko baillaretan. Izen bereko ermittian azpikaldian zeguan eskolia eta bertara juaten ziran Mandiolako eta baitta Gorostako neska-mutil gehixenak ikasi biharrekuak ikastera. Aspaldittik itxitta, gerra aurretik egindako eskola honen aztarna gitxi batzuk besterik ez dira gelditzen gaur egun.

Santa Kurutz ingurua, puntu estratejikua izan zan gerra garaixan. Gorrixen frente bat bertan zeguan, beste bat barriz, Akondia gañekaldian. Baiña ez dira gerra kontuak bakarrik Mandiola ballarak gordetzen dittuanak, erromerixak be egitten ziran. Ixuan egitten ziranak oso ezagunak ziran Eibarren eta beste baillaretatik eta herrittik be igotzen zan jendia jai giruak deittuta. Gerora Usartzan be hasi ziran erromerixak egitten.

ABAUNTZAGA / Abontza



Distantzia: 1.000 metro

Altueria: 190 metro

FITXA TEKNIKUA

**Datu
aittagarrixak**

Muñoatarrena da.

- Basarrixan lehelengo aittamena 1742koa da. Dana dala, jatorrizko basarrixa erre egiñ zan eta atzeratxuago beste etxe bat egiñ zeбен.
- Ganaua oiñ dala 10-12 urte kendu zeбен.

AIZPURI / Azpiri



Distantzia: 4 kilometro

Altueria: 370 metro

Zer daken

Patxi Sarasketa Mugerza (76), Alberto Sarasketa Mugerza (50) eta Rosa Mari Sarasketa Mugerza (47) eta euren familixiana da. Kalian bizi dira baiña sarrittan igotzen dira.

ORTUA: Intxaurrak eta sagarrak.

LURRAK: 10 hektarea.

Datu aittagarrixak

- Basarri honen gaiñian lortu dogun lehelengo aittamena 1747kua da, basarrixan Juan de Sarasketa bizi zanekua. Dana dala, basarrixa lehenagokua izan leike *Andres de Azpirik* XVII. gizaldixan frogatu zeban eta hidalgixia. Bertakuak esan deskuenez, 450 urte baiño gehixago dakaz basarrixak eta, basarrittik gora, Santa Kurutz aldera doian bidian gaiñekaldian, haitz ugari daguanetz, basarrixan izena hortik etorri leike.

- *Azpirin* jaixo zan 1864. urtian Bittor Sarasketa armagile ezaguna. Armagintziari sekulako bultzadia emotiaz gaiñera, 15 patente sinatu zittuan eta XIX. gizaldiko industria-gizon haundixenetakua izan zan. Beran anaia Antonio Sarasketak fabrikia ipini zeban basarrixan bertan. Eskopetak basarrixan montatu eta gero anaian fabrikara eruaten zittuan. Fabrikiaz gaiñera, eskolia be egon zan *Azpirin*.

- *Azpirin* basarrixan bizi izandako jende ezagunan artian Indalezio Sarasketa "Eibarko Txikito" pelotari haundixa be aittatu bihar da. "Txikito" Durangon jaixo arren gaztaro guztia basarrixan pasatu zeban.

- Basarrixa gitxienez azken 250 urtietan Sarasketatarrena izan da. 1965ian laga zeben basarrixa eta oiñ urte bi barrizten hasi dira.

AKONDIA



Distantzia: 5 kilometro

Altueria: 610 metro

FITXA TEKNIKIA

Zer daken

Jose Maria Urionabarrenetxea Gandiaga (74), Jesusa Barinagarrementeria Gandiaga (70), Jose Urionabarrenetxea Barinagarrementeria (44), Maria Josefa Lourdes Elizalde Azkue (39) eta Ismael Urionabarrenetxea Elizalde (7).

Datu aittagarriak

ANIMALIXAK: Behiak (16 larrerakuak eta 3 esnetarakuak).
ORTUA: Artua eta sasoiko barazkixak gehixen bat (lantzian behiñ jaisten dira herrira saltzera).

LURRAK: 11 hektarea.

- Akondia izena 1390ian aittatzen da lehelengoz, Akondia inguruan Oñaztar eta Ganboatarren arteko burruka ezaguna egon zan eta.

- 1600. urteko agirixetan Akondia kofradixian barri emoten jaku. Kofradixa hori, Barrenkaletik behera eta Ixutik Eltzartzagaraño zeguazen basarriak osatzen zeben.

- Badirudi jatorriz aldamenian dagan San Pedro ermittian serora-etxia zala eta holan agertzen da 1747ko agirixetan. Urte horretako zentsuan, Akondia ermittan Joseph de Ezkaregi bizi zala irakorri leike.

- 1810ian, Manuel Antonio Muruak erosi zeban 10.040 errialetan. Denbora gitxira Jose Juakin Suinagak erosi zeban prezio berian.

- 1936ko gerratian, frentia basarrixan gaiñekaldian egon zan. Basarrixa gorrixen menpe egon zan 7 hillabetian zihar. Teillatutik egitten zeben tiro eta ametralladoria ermitta barruan ipini zeben. Ermittako kanpaia astelena frontoira eruan zeben. Gerratia amaittu eta gero basarrixa guztiz konpondu bihar izan zan eta 1993an barriztu da azkenengoz.

AMEZABALEGI ABELETXE / Abanzabalei Abeletxia Amazabalei Abeletxia



Distantzia: 4 kilometro

Altueria: 425 metro

Zer daken

**Datu
aittagarrixak**

Jose Arrieta Zabaleta (72) eta Tomasa Arrieta Zabaleta (66).

ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako).

- Basarri hau jatorriz, Am ezabalei basarrixan abeletxia edo kortia izan zan. Izan be, 1747ko basarri zerrendan ez da agertzen eta 1812ko agirixetan agertzen jaku lehelengoz. Urte horretan Peñafloidako Kondia zan jabia eta 20 anega gari eta 22 anega arto jaso zittuen basarrixan.

- Gerra aurretik erromerixak egiten ziran etxe barruan eta Jenaro "Olarria" izaten zan soiñujolia.

- "Abeletxe" izena daken basarri gehixenen leztxe, jatorriz abeletxe edo arditokixa izango zan eta urtietan zihar zatika haunditzen eta barrizten jua da. Azken urtietan, arditokixa kendu eta soziedade bihurtu dabe.

- Ganaua oiñ dala 4 urte kendu zebeu.

AMEZABALEGI BEHEKOA / Abanzabalei Behekua Amazabalei Behekua



Distantzia: 4 kilometro

Altueria: 400 metro

FITXA TEKNIKUA

Zer daken

Jose Luis Rodríguez Berasaluze (52), Mari Asun Elejalde Berasategi (45) eta Jesus Elejalde Berasategi (42). Kalian bizi dira baiña sarrittan igotzen dira bertara.

Datu aittagarriak

ANIMALIXAK: Behiak (4), txahalak (3), idixak (1), oilluak (24) eta indi oillarra. Eusko labela dake.

ORTUA: Sasoiko barazkixak (lantzian behiñ saltzen dittue herrixan euren barazkixak).

- *1498xan aittatzen da lehelengoz Am ezabalegileku izena. Basarrixan lehelengo aittamena beranduagokua da. 1747. urtian, Am ezabalei basarrixan (jatorriz Am ezabalei Gokua eta Behekua basarri bakarra ziran) Francisco eta Pedro de Abanzabalegi bizi ziran. 1812. urtian be oindiokan basarri bakarra ziran eta urte horretan 30 anega gari eta 36 anega arto batu zittuen.

- Juan zan gizaldittik hona gaur egungo jabien familixia bizi izan da bertan.

AMEZABALEGI GOIK OA / Abanzabalei Goikua Amazabalei Goikua



Distantzia: 4 kilometro

Altueria: 400 metro

Zer daken

Txomin Laskurain Leturiondo (64) eta Irene Azpiri Iriondo (62).

ANIMALIXAK: Behiak (8, larrerakuak), oilluak eta astua. Eusko labela dake.

ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako). Sagar, madari, keixa eta intxaurrak.

LURRAK: 20 hektarea.

Datu aittagarriak

- (Begiratu Am azabalegi Behekoa)*.

- 1557xan Pedro de Abanzabalegi izeneko gizon bat bizi zan Eibarren eta 1757xan, beste Pedro de Abanzabalegi bat izan zan herriko alkate.

- Oiñ dala 110 urte inguru erre egiñ zan eta goitik behera barriztu bihar izan zan. 1992xan barriztu da azkenengoz.

- Basarriak emon dittuan pertsonai ezagunen artian Julian Laskurain "Amazabal" probalarixa dakagu. Idixen karretero moduan be ibili zan.

ANBEÑA / Amaña

FIGXA TEKNIKIA	Egoeria	Desagertuta. Legarreko erresidentzia dagan tokixan zeguan.
	Distantzia	500 metro.
	Datu aittagarrixak	- Basarrixan lehelengo aittamena 1742kua da eta 1747xan Pedro de Sarasketa bizi zan bertan. - Beran lurrak, Zozolaraño heltzen ziran. Ospittal zaharra egitteko bota zeben.

ARDANTZA

FIGXA TEKNIKIA	Egoeria	Desagertuta. Ardantzako zubi zaharran gaiñekaldian zeguan.
	Distantzia	500 metro.
	Altueria	140 metro.
	Datu aittagarrixak	- Ardantza auzuan sarreran, eskumatara, hiru etxe zeguazen herrezkadan. Bidia igotzen lehelengua Labakua kale-basarrixa zan. Trenbidian aldamenian zeguan, gaur egun Baskaranen taillarra dagan tokixan gitxi-gorabehera. Labia zekan eta ogixa egiñ eta saltzen zeben. - Gizaldi hasieran Pantaleon Iriondok erosi zeban eta harrezkero Pantaleonenekua izenakin ezagutu izan zan. 1955. urte inguruan egon ziran uholdiekin ganaua hil jakon Pantaleoneri eta 1956xan garajiak egitteko bota zan. - Aldamenian, Botononenekua izeneko etxia zekan, sasoi berian bota zana. Eta jarraixan, piskat goratsuago, Indianokua Jauregikuen zerbitzarixen etxia. Hori etxiori oindiokan tente dago, Aldatze kalia hasten dan tokixan.

ARITXULOETA / Aritxulueta



Distantzia: 4 kilometro

Altueria: 405 metro

Zer daken	<p>Felisa Gallastegi Txurruka (84), Juanita Gallastegi Txurruka (82) eta Antonio Gallastegi Txurruka (77).</p> <p>ANIMALIXAK: Behiak (17, larrerakuak) eta untxiak (20).</p> <p>ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako). Sagarrak, pikuak, madarixak, gaztaiñak eta mahatsa.</p>
Datu aittagarrixak	<p>- 1498. urtekua da basarrixan lehelengo aittamena, <i>Areschubeta</i>.</p> <p>- Aritxuloetatarrak berihala zabaldu ziran munduan zihar. 1600 inguruan familixian adar bat Sevillan bizi zan eta beste bat Ameriketan. XVI eta XVII. gizaldixetan, <i>Aritxuloetatarrak</i> oso militar ezagunak izan ziran Ameriketan, Txinan eta Espaiñan.</p> <p>- Azken mendietan Isasiko Markesen jabegokua izan zan. Oiñ dala 46 urtetik Gallastegitarrena da.</p> <p>- Aritxulueta seme batzuk, Zozola eta Aritxulueta basarrixen erdixan Xoxola-barri izeneko etxia egiñ (1950. urtian) eta bertan bizi dira.</p> <p>Bi etxebizitza dira: 1) - Agustina Gallastegi Txurruka (71), Angel Maria Zubizarreta Agirre (41), Lourdes Garramiola Gallastegi (38), Iñaki Garramiola Gallastegi (28), Irune Zubizarreta Garramiola (12) eta Jon Zubizarreta Garramiola (8).</p> <p style="text-align: center;">2) - Bizente Jauregi Sarrionaindia, Mari Paz Izagirre Gallastegi, Iban Jauregi Izagirre eta Aitor Jauregi Izagirre.</p>

ARLABAN BEHEKOA / Arlaban Behekua



Distantzia: 2,5 kilometro

Altueria: 255 metro

FITXA TEKNIKUA

Zer daken

Benedikta Agirrebeña Arizaga (61), Luzio Agirrebeña Arizaga (65) eta Emilia Antonia Pacheco Martín (59). Kalian bizi dira baiña sarritan igotzen dira.

ANIMALIXAK: Untxiak (30).

ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako).

**Datu
aittagarrixak**

- 1857kua da basarrixan lehelengo aittamena.
- Hiru edo lau familia bizi izan dira bertan azkenengo 70 urtietan.

ARLABAN GOIKOA / Arlaban Goikua



Distantzia: 2,5 kilometro

Altueria: 255 metro

FITXA TEKNIKUA

Zer daken

Maria Jesus Arizaga eta Migel Solozabal. Kalian bizi dira baiña sarritan igotzen dira bertara.

ANIMALIXAK: Untxiak (30).

**Datu
aittagarrixak**

- Basarritik bizi izan diran azkenak Juan Angel Arizaga eta beran familia izan dira. Oiñ dala 30 urte kendu zebeñ ganaua eta 1978xan jaitsi ziran kalera bizi izatera.

ARRAJOLA



Distantzia: 1.000 metro

Altueria: 265 metro

Zer daken

**Datu
aittagarrixak**

Etxebikotxa:

- 1 - Salvadora Atxa (65) eta familia.
 - 2 - Maria Zabala Bildosola (71) eta familia.
- Bixetako bat soziedade moduan erabiltzen dabe.

ANIMALIXAK: Behiak (6, esnetarakuak, baiña ez dira eurenak).

ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako). Euren lurretan keixondo eta arte ugari dakez.

- Basarrixan lehelengo aittamena 1602. urtekua da *Ayarola* izenakin.
- 1747xan Nikolas eta Martin de Egiguren bizi ziran bertan.
- Arrarua dan arren, azken lau belaunaldixetan andrazkuak euki dabe basarrixan maiorazgua.
- Basarri honetan bizi izandako Patxi Bildosola adari-probetan jarduten zebalako ezaguna zan Eibarren gizaldi hasieran.
- *Arrajola* basarri parian dagan artia Eibarren dagan haundixenatarikua da.

ARTEGIETA / Arteitxa



Distantzia: 1,5 kilometro

Altueria: -

FITXA
TEKNIKUA

Egoeria

Desagertuta. Artegieta kalea 6, Amaña.

**Datu
aittagarrixak**

- Basarrixan lehelengo aittamena 1584koa da.
- 1747xan Pedro de Gisasola bizi zan bertan.
- Juan zan gizaldi amaieran, Jose Kruz Gisasola "Arteitxa" eta Gregoria Atxak erosi zeben. Gerrate ostian, basarrixa etxe bihurtu eta oiñ dala 10 urte ingurura arte, Jose Maria Gisasola eta Bitoria Castañares bizi izan ziran bertan.
- Amañako elixian azpikaldian zeguan, gaur egun Artegieta kalia hasten dan tokixan. Basarrixa 1988ko urtarrillan bota zan parkia egiteko asmuakin. Oindiokan ez da ezer egiñ.

ASOLA AZPIKOA / Asola Azpikua



Distantzia: 2,5 kilometro

Altueria: 225 metro

FITXA
TEKNIKUA

Egoeria

Hutsik.

**Datu
aittagarrixak**

- 1747xan Baupista de Amurutegi bizi zan Asola Azpikuan eta hori da basarri honen gaiñian aittamenik zaharrena.
- Azkenengo gizaldi honetan Arizagatarrena izan da. 1964an jaitsi ziran kalera.
- Oiñ dala 2 urtera arte erreteruak egon ziran eta gaur egun hutsik dago.
- Basarri honetatik urten diran pertsonai ezagunen artian, adarri-jokuetan jardun zeban Jose Arizaga dakagu.

ASOLA BERRI / Asola Barri



Distantzia: 2,5 kilometro

Altueria: 250 metro

Zer daken

Datu
aittagarrixak

Jesus Maguregi Salaberria (33), Jose Luis Maguregi Salaberria (44), Maite Trigueros Bermúdez (39) eta Ainhoa Maguregi Trigueros (1).

ANIMALIXAK: Untxiak, ardiak (2) eta oilluak.

ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako).

- Mahasti izenakin be ezagutzen da basarri hau. Paraje berua danez, mahats ugari zeguan bertan eta txakoliña egitten zeben.
- Jatorriz txabilia zan eta 1920xan Bittor Ugarteburu Ziorragak etxia eraiki zeban bertan.
- Gizaldi erdikaldian oso ezagunak ziran basarrixan behekaldian zeguazen bolatokixa eta tabernia.
- Oiñ 50 urte inguru Marziano Ugarteburuk bi etxebizitza egiñ zittuan.
- Goiko etxebizitza 1946 inguruan Emilia Agirrebeña eta Imanol Bergarak erosi zeben eta oiñ dala 21 urte jaitsi ziran kalera.
- Beheko etxebizitza Felix Sarasketa Mugurazak erosi zeban eta azken urtiotan eskuz-esku aldatu da. Oiñ dala urte bittik, oiñ dagozenak bizi dira.

ASOLA GAINEKOA / Asola Gaiñekua



Distantzia: 2,5 kilometro

Altueria: 255 metro

FITXA TEKNIKIA

Zer daken

Jose Agirrebeña Arizaga (73) eta Juliana Azpiri Iriondo (65).

Datu
aittagarrixak

ANIMALIXAK: Behiak (2), txahalak (1), astuak (2), oilluak (8), untxiak (4). **ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

- 1601.ekua da basarrixan lehelengo aittamena, *Asola*. Dana dala, *Asola* izena oso zaharra da Eibarren eta ezagutzen dan Eibarko lehelengo alkatia Juan Ibañez de *Asola* izan zan (1409).

- Urte batzuk beranduago, 1747xan, Pedro de Osoro bizi zan bertan.

ASOLA IGARTZA / Asoliartzza



Distantzia: 1,5 kilometro

Altueria: -

Egoeria

Gaur egun etxe bihurtuta.

Datu
aittagarrixak

- Basarrixaren gainian lehelengo aittamena 1584kua da, ASOLA Yarıça. 1747. urtian, barriz, Domingo de Areizaga bizi zan bertan.
- Juan zan gizaldixan Isasiko Markesena zan.
- Asola-Igartza kalia dagan tokixan dago basarrixah nahiz eta jatorrizko itxurarik ez euki. Gerra ostian goittik behera barriztu zan eta etxebizitzak egiñ ziran bertan.
- Bertan jaixotakuak dira Migel eta Justo Gallastegi. Lehelengua, pelotari ezaguna, 1918ko otsaillan 25ian. Eskuz banakako txapelduna izan zan 1948tik 1952ra bittartian. Bigarrena, Justo Gallastegi, harrijasotzalle ezaguna izan zan.

GISASOLA



Distantzia: 4 kilometro

Altueria: 490 metro

FITXA TEKNIKIA

Zer daken

Katalin Txurruka Iruretagoiena (98), Pedro Gisasola Txurruka (63), Frantziska Gisasola Areitio (62), Aitor Gisasola Gisasola (31), Idoia Urzelai Bengoa (30), Ane Gisasola Urzelai (5), Miren Gisasola Urzelai (4), Jaione Gisasola Urzelai (3), Jon Gisasola Urzelai (1996ko iraillaren 18xan jaixota), Jesus Iriondo Lejardi (35), Mari Karmen Gisasola Gisasola (28) eta Julen Iriondo Gisasola (1).

Datu aitagarrixak

ANIMALIXAK: Behiak (20 esnetarakuak eta 10 larrerakuak), ardixak (22), oilluak (30), ahuntzak (10), txarrixak (3) eta astua.

ORTUA: Sasoiko barazkixak (noixian behiñ jaisten dira plazara). Lorak eta esnia be saltzen dittue.

LURRAK: 40 hektarea.

- Basarrixan lehelengo aittamena 1498kua da, baiña familixian lehelengo erreferentzia 1340ko agirixetan agertzen da.
- Gisasola basarrixia oiñetxia da. 1664. urtian lortutako Hialdalgixaliburua eta Arma-agirixa be gordeta dakez.
- 1747xan Martin de Gisasola bizi zan bertan.
- Basarrixak familixian armarrixia daka sarrerako ate gaiñian. Armarrixan aingeru bi agertzen dira eta gerratian bixetako bat apurtu egiñ zan.
- 1964. urtian erreterero zeguazenen tximinixak su hartuta, egurrezkua zan sabai aldia erre egiñ zan.
- 1976xan kortia barriztu zebeñ.
- Bertako Kattalinen esanetan, Gisasola basarrixan kardenal famoso bat jaixo ei zan.
- Eibarren Gisasola abizena euki daben 11 alkate ezagutu dira.
- 1747ko agirixetan, Gisasola Abeletxe izeneko basarri bat be aittatzen da eta Isidro de Ezkaregi bizi zan bertan. Seguru asko gaur egun Gisasolakuen txabolía dana izango zan.

IBARBE / Ibarbeia

Egoeria	Desagertuta. Ibarkurutze kalia zeguan.
Distantzia	500 metro.
Altueria	130 metro.
Datu aittagarriak	<ul style="list-style-type: none"> - Ibarbeia izeneko eraikuntza baten lehelengo aittamena Ibarbeia errotiana da. Holan agertzen da 1584. urteko agirixetan. 1771. urteko agirixetan, Caseria Solarde Ibarbeia, molino y casa de labor, agertzen jaku eta 1812xan, oster, Eibarko basarrixen artian izen bereko basarri bat aittatzen da. Beraz, itxuria danez, Ibarbeia basarrixa eta errotia, izen bera zekan dorretxian babesian jaixo ziran eta jabe beranak izango ziran. - 1812. urtian Jose Joakin Larrañaga zan jabia eta basarriak 8 anega gari, 10 anega arto eta anega 1 gaztaiña jaso zittuan. - Ibara izenakin be ezagutu izan ziran dorretxia eta basarrixa. - Basarriak bi pisu eta ganbaria zekazen.

IBARGAIN / Ibargaiñ



Distantzia: 500 metro

Altueria: 130 metro

Egoeria	Hutsik.
Datu aittagarriak	<ul style="list-style-type: none"> - Basarrixaren gaiñian lortu ahal izan dogun aittamen idatzirik zaharrena 1780kua da. Dana dala, ate gaiñian "año 1705" irakorri leike. - Ibargaina, Ibarbeia moduan, izen bereko dorretxian babesian jaixotako basarrixa da. Seguru asko, bai bata eta bai bestia, jatorriz, dorretxien txabolak izango ziran, gero basarri bihurtu ziranak. - Ibaratoria edo Ibaragaraikoa izeneko dorretxia, Ibargaina basarrixan aldamenian zeguan eta dorre horren aldamenian zeguan zugaitz haundi baten azpitan batzen zan Eibarko Kontzejua, XV. eta XVI. gizaldixetan. - Ibargaina basarrixan paretik Markinarako bidia pasatzen zan. Durango-Zumarraga trenbidia be basarri parian inauguratu zan 1885. urtian. - Bertako Santiago Astigarraga probalari ezaguna izan zan. 1914-15 urtietan alkatia be izan zan.

ITURRAO BEHEKOA / Iturrua Behekua



Distantzia: 4 kilometro

Altueria: 410 metro

FITXA TEKNIKIA

Zer daken

Maria Mugerza Urzuriaga (69), Jabier Arrillaga Atxa (46), Ana Mari Ugarteburu Mugerza (44), Ainhoa Arrillaga Ugarteburu (22), Ane Arrillaga Ugarteburu (21) eta Josu Arrillaga Ugarteburu (13).

Datu aittagarriak

ANIMALIXAK: Behiak (4 larrerakuak eta 6 esnetarakuak), oilluak (16).
ORTUA: Sasoiko barazkixak (astian behiñ plazara jaisten dira). Lorak be badakez.

- *1747. urtekua da basarrixan lehelengo aittamena. Urte horretan Lucas de Iturrao bizi zan basarrixan (jatorriz Iturrua Behekua eta Iturrua Gokua basarri bakarra ziran).

- *Iturraotarrak ezagunak izan ziran Eibarren XVI-XVII. gizaldixetan. Hamaika alkate eta izkribau emon detsaz basarrixak gure herrixari.

- Juan zan gizaldittik hona gitxienez, Ugarteburutarrak bizi izan dira bertan.

- 1978. urtian barriztu zebeu basarrixa.

ITURRAO GOIKOA / Iturrua Goikua



Distantzia: 4 kilometro

Altueria: 410 metro

FIGXA
TEKNIKIA

Zer daken

Angel Uranga Astigarraga (78) eta Bittoria Suinaga Sarasketa (81).

Datu
aittagarrixak

ANIMALIXAK: Behiak (7, larrerakuak), oilluak (10) eta astua.
ORTUA: Artua eta sasoiko barazkixak (etxerako). Piñu gaztiak.
LURRAK: 10 hektarea.

- (Begiratu Iturrao Behekoa)*.
- Suinagatarrena da aspalditik.



ITURRAO ABELETXE / Iturrua Abeletxe



Distantzia: 4 kilometro

Altueria: 425 metro

FITXA TEKNIKUA

Zer daken

Juan Urzuriaga Muguruza (75), Maria Etxaniz Muguruza (70), Marina Urzuriaga Etxaniz (42) eta Jabier Lekue (48).

ANIMALIXAK: Behiak (3), txahalak (4), ardixak (25), idixak (2) eta oilluak (10).

ORTUA: Artua, babia, patatia,... (plazara astian behiñ edo birritan jaisten dira). Lantzian behiñ lorak be saltzen dittue.

LURRAK: 16 hektarea.

Datu aitagarrizak

- 1747. urtekua da basarrixan lehelengo aittamena, Adrian de Ibarzabal

- Gerra aurretik erosi zebe Urzuriagatarrak basarrixa. Aurreko ugazaba, Akondia, Abanzabalegieta Iturrua guztien jabia zan.

- Oin dala 100 urte baiño gehixago basarrixa erre egiñ zan. Onduan zeguan txabolía be erre egiñ zan ardixak barruan zeguazela. Bai basarrixa eta bai txabolía berriro jaso zittuen.

- Gerra sasoiñ gorrixak egon ziran bertan. Basarritik urtetzeko agindua jaso zebe arren, Martin Kerido eibartarran bittartez, guarda bi ipini zittuen basarrixa zaintzen eta ez ziran bertatik urten. Urte horretan hiru familixa bizi izan ziran Iturrua Abeletxen.

IXUA



Distantzia: 5 kilometro

Altueria: 500 metro

Zer daken

Francisco Javier Carrasco Vega (37), Nerea Gisasola Gisasola (33), Eneko Carrasco Gisasola (7) eta Mainer Carrasco Gisasola (6).

Datu
aittagarrixak

ANIMALIXAK: Behiak (baiña 5 Gisasolakuenak dira), untxiak.
ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako). Sagarrak, magurdixak. Lorak, gladioluak (lantzian behiñ saltzen dittue).
- Basarrixan lehelengo aittamena 1600. urtekua da. Dana dala, IXUA leku-izena 1498ko agirixetan agertzen da lehelengoz.
- IXUA basarrixa Gisasolanekeua da.
- 1988xan Juan Ziran bertara bizi izatera oingo bizilagunak.

KORTABERRI / Kortabarri



Distantzia: -

Altueria: 280 metro

PIIXA TEKNIKIA

Egoeria

Jausitta. Antonio Sarasketa da jabia.

Altueria

280 metro.

Datu
aittagarrixak

- 1799ko agirixetan lekuan aittamena agertzen da.
- Gaur egungo jabiak oiñ dala 8 urte erosi zeban.
- Eneñan etxia izenakin be ezagutu izan da.
- Bertan, errentan, kanpotik etorritako sei familixa bizi izan ziran gizaldi erdikaldian. Aspalditik hutsik egon da eta oiñ dala 6 urte, mendixak sua hartu zebanian, basarrixan horma batzuk bakarrik gelditu ziran.

LEGARRA / Legarre

PIIXA TEKNIKIA

Egoeria

Desagertuta. Legarren zeguan

Datu
aittagarrixak

- Basarrixan lehelengo aittamena 1584. urtekua da. Izen bereko errota be bazeguan. 1747. urtian, Gregorio de Sarasketa bizi zan Legarre basarrixan.
- Badakigu 1834 erre egiñ zala. 1888xan oindiokan martxan zeguan eta Martin Gisasola bizi zan bertan. Ez dakigu hortik aurrera zer pasatu jakon eta noiz bota zan.

MATSARIA / Matxari

FITXA TEKNIKIA	Egoeria	Desagertuta. Oñ grua munizipalak kotxiak gordetzen dittuan lekuan zeguan.
	Distantzia	Udaletxetik 1.000 metrora.
	Datu aittagarriak	<ul style="list-style-type: none"> - Basarrixan lehelengo aittamena 1601ekua da. - Basarrixa erre egiñ ei zan baiña gero barriztu zeben. - Izen bereko errotia eta labaderua zekazen inguruan. Labaderua 1901. urtian egiñ zala badakigu eta 3338,03 pezeta kostatu zan. - Bertakua zan “Marixu Matxarikua”.

MEKOLA ETXEBERRI / Mekola Etxebarri

FITXA TEKNIKIA	Egoeria	Desagertuta. Hospittal zaharran aldamenian zeguan.
	Distantzia	500 metro.
	Datu aittagarriak	<ul style="list-style-type: none"> - 1573an, ospittal zaharran aldemenian <i>Mekolalde de Suso</i> izeneko etxe bat zeguan. Izen bera 1833ko agirixetan agertzen jaku. Urte horretan <i>Mekolalde</i> izeneko basarri bat zeguan Mekola-Legarre inguruan. - 1888ra arte <i>Mekolalde</i> basarrixari buruzko datu dexente azaltzen da baiña hortik aurrera desagertu egitten da. 1900. urtian izen barrixakin agertzen jaku, <i>Mekola Etxebarri</i> - <i>Mekola</i> izenakin be ezagutu izan da. - <i>Mekola Etxebarri</i> 1954. urtian bota zan etxiak egitteko.

MENDIOLA AZPIKOA / Mandiola Azpikua



Distantzia: 3 kilometro

Altueria: 355 metro

ETXA TEKNIKIA

Zer daken

Bi familia bizi dira bertan:

1 - Dominga Arrillaga Arrillaga (66), Jesusa Ugarteburu Arrillaga (43), Maria Isabel Ugarteburu Arrillaga (42), Mari Karmen Ugarteburu Arrillaga (31), Unai Beitia Ugarteburu (14), Iraitz Beitia Ugarteburu (10).

2 - Karmen Agirregomezkorta Elizburu (63), Joxean Astigarraga (37), Amaia Ugarteburu Agirregomezkorta (33) eta Ander Astigarraga Ugarteburu (2).

ANIMALIXAK: Behiak (5, esnetarakuak), txahalak (6).

ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako). Intxaurrak, keixak, gaztaiñak eta melokotoiak. Lizarrak, haritzak eta aittak sartutako pago batzuk. Piñua.

LURRAK: 18 hektarea.

Datu aittagarrixak

- Basarrixaren gaiñian lortu ahal izan dogun lehelengo aittamena 1747. urtekua da, sasoi horretan Andres de Mandiola bizi zan Mandiola Azpikua basarrixan.

- Etxian aurreko partia 1818xan barriztu zan.

- Basarrixak lehenago armarrixa ei zekan eta baserrikuak, denboraldi baten, kanposantuko kapillan egon zala uste dabe.

MENDIOLA GAINEK OA / Mandiola Gaiñekua



Distantzia: 3,5 kilometro

Altueria: 400 metro

Zer daken

Bizente Alberdi Zabaleta (45), Olatz Alberdi Oregi (9) eta Eneritz Alberdi Oregi (4).

ANIMALIXAK: Behiak (2, esnetarakuak), txahalak (3), unxiak (8), oilluak (40), bilixak (2), ardixak (23), usuak (15), bihorrak (3). Gaztaia be egitten dabe.

ORTUA: Lorak eta sasoiko barazkixak (noixian behiñ saltzen dabe jenerua).

LURRAK: 21 hektarea.

Datu
aittagarrixak

- Basarrixan lehelengo aittamena 1747. urtekua da, Agustín de Mandiola bizi zan orduan Mandiola Gaiñen.

- Basarrixa eta kortia 1983an barriztu ziran.

- Bizente Alberdik bost gaztai-sari irabazi dittu azkenengo urtiotan.

MENDIOLA ERDIK OA / Mandiola Erdikua

FITXA TEKNIKUA	Egoeria	Abeletxe moduan erabili izan da.
	Altueria	375 metro.
	Datu aitagarririk	<ul style="list-style-type: none"> - 1767. urtian bertan Domingo izeneko gizon bat bizi zala azaltzen daben agirixak dare. Hori da basarrixan lehelengo aittamena. - 100 urte baiño gehixago dira bertan bizi zan familia kalera jaitsi zala eta orduan Mandiola Gañekuak erosi zeban basarrixa. - Denboriakin basarri zati bat jausi egiñ zan eta txabolia egiñ zeben abeletxe moduan erabiltzeko.

MILAFLORES BEHEKOA / Millapros Behekua



Distantzia: 1.000 metro

Altueria: 240 metro

FITXA TEKNIKUA	Zer daken	Hutsik dago.
	Datu aitagarririk	<p>ANIMALIXAK: Ardixak.</p> <p>ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako).</p> <ul style="list-style-type: none"> - Milaflores Goikuan lehelengo aittamena XVIII gizaldikua dan arren, Milaflores Behekua askoz barrixagua da. 1925. urteko agirixetan agertzen jaku lehelengoz basarri hau (Milaflores Nueva izenakin). - Gizaldi honetan zihar Maguregitarrena izan da. - Aldameneko etxian, urte askotan zihar, taberna ezaguna egon da.

MILAFLORES GOIK OA / Millapros Goikua



Distantzia: 1.000 metro

Altueria: 240 metro

Zer daken

**Datu
aittagarrixak**

Bi etxebizitza dakaz:

- 1 - Jose Ramon Zuloaga Garitaonaindia (53) eta Lourdes Uranga San Vicente (50).
- 2 - Jose Luis Zuloaga Garitaonaindia (61).

ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako).

- Bilabares izenakin agertzen da lehelengoz 1747. urtian eta Julian de Etxabarrá bizi zan orduan bertan.
- 1967. urtian erre egiñ zan basarrixa. Gero oiñ dagan etxia egiñ eta basarri izatiari laga zetsan.
- Itturri ederra daka aldamenian.
- Bertakua zan Juanito Zuluaga "Baltzak", Eibarren oso entzuna izan zan posturia egiñ zeban 1939. urtian. Trenbidietako langille bat, 104 kiloko pakete bat mobidu ezinda zebillen estaziñuan. Juanito Zuluaga bertan egon eta 104 kiloko fardua Urko puntara be igoko leukiala esan zetsan. 40 duroko posturia egiñ zeben. Esan eta egiñ!. Hiru ordu t'erdixan jaso zeban. Puntara heldu eta gero holan esan ei zeban: "Nik jaso juat. Oiñ zuok jaitsi".

NAGIORBE BEHEKOA / Naiorbe Behekua



Distantzia: 3 kilometro

Altueria: 305 metro

ETXEA TEKNIKUA

Zer daken

Gregorio Suinaga Sarasketa (74), Maria Mercedes Suinaga Jaio (47), Bittorio Zelaia Basterretxea (46) eta Ana Zelaia Suinaga (21).

Datu aittagarriak

ANIMALIAK: Oilluak (12), untxiak (80) eta bilixak (3).

ORTUA: Sasoiko barazkixak (lantzian behiñ jaisten dira jenerua saltzera). Sagarrak, pikuak, okaranak, urrak eta intxaurrak.

- Naborbe basarrixa, 1857ko agirixetan agertzen da lehelengoz.

- Naiorbe Txiki izenakin be ezagutu izan da, Naiorbe Goikua baiño txikixagua dalako eta seguru asko, jatorriz beran txabolía izandakua.

- Basarrixa oiñ dala 19 urte erre egiñ zan eta goitik behera barriztu zeben. Egurrezkua zan eta kortozirkuito bat zala erre zan.

- Naborbe Behekua basarrixa Mandiola baillaran badago be, Naborbe Goikua Gorostan dago.

PAGAEGI / Pagei



Distantzia: 3 kilometro

Altueria: 290 metro

Zer daken

Andres Atxa Txurruka (59).

ANIMALIXAK: Behiak (10 larrekuak), txahalak (10), ardixak (240) eta zezena. Esnia saltzen dau.

ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako). Piñua.

LURRAK: 33 hektarea.

Datu aittagarrixak

- Basarri honetaz lortu ahal izan dogun aittamenik zaharrena 1747kua da eta urte horretan Pedro de Pagaegi bizi zan bertan. Dana dala, Pagaegi izeneko ingurua askoz lehenagotik zan ezaguna Eibarren (1498) eta seguru asko basarrixa lehenagotik zan ezaguna.
- Bertako Andres Atxan familixia betidanik bizi izan da basarrixan. Basarrixa erosi aurretik errentero egon ziran.

PAGAEGI ABELETXE / Pagei Abeletxe



Distantzia: 3,5 kilometro

Altueria: 345 metro

FITXA TEKNIKUA

Zer daken

Kalian bizi dira baiña sarritan igotzen dira bertara.

ANIMALIXAK: Ardixak (40), oilluak (30), untxiak (15), adarixak (2) eta astuak (2).

ORTUA: Sasoiko barazkixak (lantzian behiñ plazara jaisten dira). Gaztaia egitten dabe bezero fijo batzuekako. Erletxiak dakez.

LURRAK: 2 hektarea.

Datu
aittagarrixak

- Jatorriz Pagaegin abeletxia zala. Basarri moduan agertzen dan lehelengo aittamena 1812. urtekua da, Pedro de Pagaegi

PAGAEGI ETXEBERRI / Pagei Etxebarri

FITXA TEKNIKUA

Egoeria

Desagertuta. Pagei kalia gaiñekaldian zeguan.

Distantzia

300 metro.

Datu
aittagarrixak

- Basarri honen lehelengo aittamena 1868. urtekua da.
- Pisu biko etxia zan eta gaur egun DYA daguan tokixan zeguan.

PAGAEGI KORTA / Pagei Korta



Distantzia: 4 kilometro

Altueria: 440 metro

Zer daken

**Datu
aittagarrixak**

Jose Zubiate eta Nieves Azpiri etxian terrenuen kargu egitten dira baiña jabia kanpuan bizi da.

ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako).

- Jatorriz, Pagaegin kortia, bordia edo txabolia ei zan.
- Basarrixan aittamenik zaharrena 1747kua da eta urte horretan Pedro de Pagaegi bizi zan bertan. Dana dala, Pagaegi izeneko ingurua askoz lehenagotik zan ezaguna Eibarren (1498).

PITXARGAINGOA / Pitxargaiñ



Distantzia: 500 metro

Altueria: 115 metro

PITXA TEKNIKIA

Zer daken

Jesusa Langara eta beran familixiana da.

Datu
aittagarrixak

ANIMALIXAK: Oilluak.

ORTUA: Frutarbolak eta ortu txiki bat.

- Basarrixan jatorrizko izena *Dolaraetxe* zan. Dana dala, askoz ezagunagua izan da *Pitxargaiñ* edo *Pitxargaingua* izenekin. Itxuria danez, basarrixak teillatuan, usuak edan zeixen, pitxar haundi bat zekan eta hortik hartu zeban *Pitxargaiñ* izena. Beste batzuk diñuenez, basarrira heltzeko dagan aldapa pikarra dala-ta ipini zetsen *Pitxargaiñ* (*Pitxargaiñ*) izena.

- XVIII. gizaldi amaierakua da *Dolaraetxe* basarrixan lehelengo aittamena. Sasoi horretan Bergarako jauntxo bat zan jabia, Manuel Maria Acedo, baiña basarrixan bizi ziranak Etxeberritik etorritako Maguregitarrak ziran. Harrezkero eurak bizi izan dira beti bertan. Lehelengo Maguregitarra *Pitxargaiñ*en Juan Maguregi izan zan (1812). Beran atzetik, Emeterio, Polikarpo, Daniel eta Julian Maguregi etorri ziran. Azken bi honek erosi zeben basarrixa 1942. urtian.

- *Pitxargaiñ* Itzioko eskola azpitan dago eta eskolak egitteko orduan lur asko galdu zittuan. Ganaua 1966. urtian kendu zeben eta harrezkero jabiak kalia bizi dira. Gaur egun soziedade moduan erabiltzen dabe.

URKIZUEGI BEHEKUA / Urkuzei Behekua



Distantzia: 2,5 kilometro

Altueria: 195 metro

FITXA TEKNIKUA

Datu aitagarrixak	<p>Jabia Rosina Idarraga Zabala (69) da. Sarrittan igotzen da bertara.</p> <ul style="list-style-type: none">- Basarrixan lehelengo aittamena 1812. urtekua da. Dana dala, toki izena 1689. urtian agertzen da. Sasoi horretan harizti zabala zeguan leku berian.- Familixa bereko bost belaunaldi bizi izan dira bertan.- 1996. urtian barriztu dabe teillatua.
--------------------------	--

URKIZUEGI GOIK OA / Urkuzei Goikua

FITXA TEKNIKUA	Egoeria	Desagertuta.
	Altueria	230 metro.
	Datu aitagarrixak	<ul style="list-style-type: none">- Gerra ostian jaso zeban Felix Gabilondok eta Urkuzei Barri izenakin be ezagutu izan zan. Urte gitxira bost etxebizitza egiñ ziran eta errenteruak bizi izan dira oiñ dala gitxira arte.- Oiñ dala urte batzuk jabez aldatu eta bota egiñ da.

ZOZOLA



Distantzia: -

Altueria: 290 metro

ETXEA TEKNIKUA

Zer daken

Josefina Alberdi Arana (77) eta Enrike Gisasola Gonzalez (30).

ANIMALIXAK: Behiak (10, larrerak), ardixak (40). Eusko labela dake. Zortzi erletxe be badakez.

ORTUA: Sasoiko barazkixak. Tolosako babarrunak. Gaztaiñondiak eta piñua. Ogixa egiñ eta saltzen dabe. Sagardaua be egitten dabe. Nekazaritza ekologikoa egitten dabe. (Astian behiñ dendetara jaisten dira).

LURRAK: 16 hektarea.

Datu
aittagarrixak

- Zozola izenakin 1601. urtian agertzen da lehelengoz basarrixan aittamena. Zuazola izenakin be ezagutu izan da basarrixa. 1747. urteko idatzixetan, Domingo de Gisasola bizi zala bertan agertzen da. 1641. urtian, Maria de Zuazola hospittaleko ermittako seroria zan.

- Ikerlari batzuen ustez Sienako Santa Catalina dan eta bertakuek diñuenez Santa Barbara dan santuan irudixa dake etxeko sarreran. Etxia, tximistak jota hiru bidar erre zala-ta ipini zebeñ irudixa etxia zaindu zeixan. Harrezkero ez da barriz erre.

- Azken urte honetan basarrixa goittik beheera barriztu dabe.

- Basarrixan gaiñekaldian, bada izen bera dakan beste etxe bat, Xoxola-bari